

CEVI EUSKADI: BIZI-GERTAEREN ZEREGINA MEMORIA AUTOBIOGRAFIKOAN ETA KOLEKTIBOAN, ETA ONGIZATEAREKIN DUTEN LOTURA

Tesiaren egilea: Lander Méndez Casas

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Gizarte Psikologia Saila

Doktorego-programa: Psikologia

Jakintza-arloa: Gizarte Psikologia

Tesi-zuzendaria: Darío Páez Rovira eta Saioa Telletxea Artzamendi

Tesiaren laburpena:

Tesi honetan, gizabanakoen bizitza-ibilbideetan sakontzen da ikuspegi sozial batetik, eta esperientzia subjektiboaren bidez iraganeko oroitzapenak orainaldiaren ongizatearekin nola lotzen diren aztertzen da. Doktorego-tesia, CEVI -*Changements et événements au cours de la vie* Nazioarteko Sarearen esparruan garatu da (ikus <http://www2.supsi.ch/cms/cevi/>), eta lau atalez osatuta dago.

1. kapituluak eskaintzen du CEVI Sareak tesiko ikerketa enpirikoak garatzeko erabili diren ikuspegia eta prozeduren esparru kontzeptuala.

2. kapitulan, Gaza eta EAE arteko konparazio transkulturean egiaztatu da bizitzan zehar arau-aldaketa eta aldaketa positiboko gertaerak gehiago bizi izaten direla, bi kulturetan antzeko eredu ebolutiboa erakutsiz, bai eta memoria autobiografikoaren izaera positiboa ere. Oro har, asimetria bat gertatzen da, eta horrek erakusten du ongizatearekin gogoratutako gertaera pertsonal positiboan lotura handiagoa.

3. kapituluak EAEko memoria kolektiboaren edukia eta ongizatearekin duen lotura aztertzen ditu. Bertan, gertaera sozioekonomiko eta politiko-militarren konbinazio batez osatutako memoria kolektiboa ikusten da, balentzia positiboko eta negatiboko gertaerak batera aurkeztuz, batez ere iragan politikoari lotuta daudenak. Tokiko taldeari lotutako gertaeren nagusitasuna nabarmentzen da (soziozentrismoa), eta irabazitzat jotako gertaera soziohistorikoek ongizate pertsonalarekin eta haren alderdiekin lotura handiagoa erakusten dute.

4. kapituluak, alde batetik, gertakari soziohistorikoen belaunaldi-memoriaren azterketa gehitzen du. Bestetik, 3. kapituluko ikerketa-lanaren erreplika Palestinan. Orokorki, gertakari politikoaren eta indarkeria kolektiboaren oroitzapenaren nagusitasuna berresten du, nahiz eta balentzia negatiboko gertaerak ez diren nagusi. Soziozentrismoa nabarmenagoa da Latinoamerikako herrialdeetan; Europan,

berriz, nazioarteko eta Mendebaldeko gertakarien presentzia handiagoa da funtsean. CEVI ikerketa-lanetan belaunaldi-efektua ikus daiteke (gertaeren % 24); aldiz, gehien aipatutako hamar gertaera historikoen erdiek aldi-efektua ikusarazi zuten. Palestinan memoria kolektiboaren eduki politiko-militarra nabari daiteke, batez ere negatiboa eta indarkeria-gatazka politikoari lotua. Euskadin aurkitutako soziozentrismoa errepikatzen da, baina, Palestinaren kasuan, alderdi negatiboak eragiten du ongizatean gehienbat. Oro har, memoria autobiografikoak eta memoria kolektiboak gizabanakoen eta gizarte-taldean jarraitutasuna ahalbidetzen duten egokitze-mekanismo gisa uler daitezke.

Bizi-ibilbidearen ikuspegitik, tesi honek memoriaren arloko ezagutzari laguntzen dio, testuinguru desberdinetan gordetzen diren oroitzapen motei eta horiek biztanleria orokorraren ongizatearekin duten loturari buruzko informazioa emanez. Doktorego-tesi hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren doktoratu aurreko dirulaguntzarekin finantzatu da [PRE_2017_1_0405].